La constitución de esta Fundación, así como de todos los actos o negocios jurídicos de la misma que legalmente lo precisen, se inscribirán en el Registro de Fundaciones que sea competente conforme a la Ley.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B21921419

ERESBIL - Musikaren Euskal Artxiboa **FUNDAZIOA** ESTATUTUAK

I. TITULO – XADAPEN OROKORRAK

I. artikulua. Eraketa, izendapena eta iraupena

"FUNDACIÓN ERESBIL – Archivo Vasco de la Música / ERESBIL - Musikaren Euskal Artxiboa FUNDAZIOA" izendapen pean (aurrerantzean Fundazioa), Eusko Jauriaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Errenteria Udala eta Errenteriako Andra-Mari koroak fundazioa sortu zuten ekainaren 17ko 12/1994 Legearen arabera eta indarrean zeuden gainontzeko araudia kontuan hartuta.

Fundazioa dirua irabaztea xede ez duen erakunde pribatua da, sortzaileek hala nahi dutelako, bere ondarea, modu iraunkor batean, Estatutu hauen 3. artikuluan deskribatzen diren interes orokorreko xedeak gauzatzeko baliatuko dute.

2. artikulua.- Araubide Juridikoa, nortasuna eta gaitasun juridikoa

Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du bere eraketako eskriturak Fundazioen Erregistroan inskribatzen duenetik, eta jarduteko gaitasun juridiko osoa izango du, betiere sortzaileek fundazio-ekitaldian, Estatutu hauetan eta aplikagarri zaizkion lege-xedapenek —bereziki ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan— ezarritako mugak kontuan hartuta.

Ondorioz, eta Babesletzari egin beharreko jakinarazpenak eginda gero, ondare higikor eta higiezin mota guztiak eta eskubideak erdietsi, zaindu, eduki, edozein bitarteko bidez saldu eta kargatu ahal izango du. Era berean, ekintza eta kontratu mota guztiak egin ahal izango ditu; maileguak jaso eta itzuli; ekintza-mota guztiak baliatuz eta ordenamendu juridikoak ezartzen duenaren baitan, gobernu edo bide judizialetera jo, Epaitegi, Auzitegi eta erakunde publiko zein pribatuetara izan ezik.

3. artikulua.- Fundazioaren xedeak

Fundazioak xedetzat du Musika-ondarea ikertu, bildu, zaindu eta zabaltzea, bereziki Euskal Konposatzaileen ekoizpena.

4. artikulua.- Xedeen garapena

Fundazioak bere xedeak bidezkoak deritzon baliabidez gara ditzake, baita beste erakunde edo antolaketetan parte hartuz ere. Soilik eratzte-gutunean, Estatutu hauetan eta legeetan ezarritako mugak izango ditu kontuan.

5. artikulua- Helbidea

1. Fundazioaren helbidea Errenteriako Alfonso XI. kaleko 2 da.

2. Fundazioaren patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabaki baten bidez aldatu ahalko da helbide hori, eta erabaki hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Halaber, Patronatuari ahalmena ematen zaio establezimenduen, ordezkartzen edo bulegoen egoitzak hautatzeko, kasuan kasuko fundazioaren helburuak betetzeko eginkizunean sortzen diren beharriaren arabera.

6. artikulua.- Lurralde-eremua

Fundazioak bere ekintzak nagusiki Euskal Herrian burutuko ditu.

7. artikulua.- Onuradunak

1. Fundazioak, interes orokorreko bere xedeen barruan, objetibotasunez eta inpartzialtasunez jardungo du onuradunak hautatzeko orduan, hots, diskriminaziorik egin gabe. Horrela, oro har, Fundazioaren ekintzez onuratuak izan daitezke ekintzekiko interes zuzena duela egiaztatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridiko.
2. Fundazioak bere ekintzengatik onuradunei zerbait ordaintzea exijitzen badie, Fundazioak onuradun bezala soilik hitzartutako kantitatea ordaintzen dutenak onartuko ditu. Era berean, Fundazioaren izaera beragatik onuradun-kopurua mugatu beharko balitz, Fundazioaren Patronatuak egingo du atzerako bueltarik gabe, nahiz eta horretarako kontuan hartuko dituen izangai ezberdinen merezimenduak, beharrak, ahalmen ekonomiko eta aprobetxamendu-posibilitateak, edo ezaugarri objektiboen baitan egingo du. Edonola izanda ere, inork ezingo du alegatu —bakarka edo kolektiboki— Fundazio edo honen organoen aurrean, onura horietaz baliatzen dela beroriek eman aurretik, ezta inposatu ere beroriek pertsona jakin batzuei.

8. artikulua.- Publizitatea

1. Fundazioaren ekintzen berri onuradunek edo interesdunek izan dezaten, Patronatuak bere helburuen eta ekintzen publizitatea egingo du.
2. Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:
 - a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren xede eta jarduerari buruzko informazio nahiko emando du, herritarrek oro hoar eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.
 - b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
 - c) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu.
 - d) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirtuarena ere.
 - e) Etengabeko lankidetzeta leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.
 - f) Ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zainza, Fundazioaren estatutuaren eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrira.
 - g) Genero-berdintasuna.

II. TITULUA.- FUNDAZIOAREN GOBERNATZEKO ERA

9. artikulua.- Patronatua

1. Patronatua da Fundazioaren administrazio eta ordezkartzenaren gobernu-organismoa



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B21921418

nagusia, eta fundazioko xedeak gauzatzearren, zuzendaritza eta kudeaketa-kontrola egiteko ahalmen guztiak izango ditu.

2. Patronatuari bereziki zera dagokio:

- a) Fundazioko xedeak erdiesten saiatzea.
- b) Baliabide ekonomiko eta finantziero guztien administrazioa eramatea, berorien jatorria edozein izanda ere.
- c) Hurrengo urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontua eta memoria onartzea.
- d) Onartzea, hala behar izanez gero, barne-araudia.
- e) Batzorde-ordezkariek sortzea, berorietako kideak izendatzea eta ahalmenak erabakitzea.
- f) Estatutu hauen 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zuzendaritza-karguak, exekutiboak eta aholkularien izendapena egingo du, hala nola gainontzeko langileria tekniko, administratibo, lan-kontratadun eta mendekoak kontratatu.
- g) Egintza eta kontratu mota guztiak egin eta onartuko ditu, nahiz eta horiek zibil erakoak, merkataritzakoak, laboralak, administratiboak edo edozein motatakoak izan, alegia, Fundazioaren xedetarako hobekien egokitzen dena.
- h) Ahalmena duten erakundeei egin beharreko proposamenak egin goragokoek erabaki beharreko aferetarako.
- i) Enpresa, erakunde, organismo, edo partikularren esku hartzea sustatu kooperazio teknikoko programetan eta prestaturiko langileen prestakuntzarako, horretarako diru-fondoak aportatu eta lankidetzahitzarmenak eginez.
- j) Fundaziorako komenigarriak direla ikusiz gero, herentziak edo donazioak onartu edo atzera bota, betiere Babesletza jakinaren gainean jarrita.
- k) Beharrezkoa izanez gero, Fundazioaren estatutuak aldatu sortzaileen nahia hobeto betetzearren.
- l) Fundazioaren ikuskaritza, zaintza eta kontrol handia eraman.
- m) Onartu inbentarioa, jarduera-memoria, balantzea eta emaitzen kontua, aurrekontuak, hala nola aurreko ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen likidazioa.
- n) Fundazioaren helbidea aldatu eta erabaki establezimendu eta delegaritzen egoitzak, horiek baleude.
- o) Erabaki Fundazioarenategitea beste batekin edo beste batzuekin.
- p) Erabaki Fundazioaren desegitea eta likidazio-programa.

10. artikulua.- Osaketa eta iraupena

1.- Fundazioaren Patronatua gutxienez lau kidek eta gehienez 10ek osatuko dute.

2.- Fundazioaren Patronatua hasiera batean osatuko dute:

- a. Eusko Jaurlaritzak bi ordezkarik fisiko izango ditu legedian xedatutakoaren arabera.
- b. Gipuzkoako Foru Aldundiak bi ordezkarik fisiko izango ditu legedian xedatutakoaren arabera.
- c. Errenteriako Udalak bi ordezkarik fisiko izango ditu legedian xedatutakoaren arabera.
- d. Errenteriako Andra Mari Koroak ordezkarik fisiko bat izango du.

3.- Patronatuak patronatukide izendatu ahal izango ditu Fundazioari diru-laguntza esanguratsuak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

4.- Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dute desgaituta egon kargu publikoak betetzeko.

baten bidez
Erregistroan
naten zaio
ko, kasuan
tzen diren

asunez eta
uan, hots,
z onuratuak
ien edozein

itzen badie,
zen dutenak
lun-kopurua
ko bueltarik
ezberdinen
etxamendu-
izanda ere,
edo honen
urretik, ezta

an dezaten,

buruzko
neko

terakoan,

ta

zioaren
re.
ioen

n delako
ben legedian

rrnu-organoa

Patronatukideak diren pertsona juridikoek izendatu beharko dituzte organo horretan haien ordezkari izango diren pertsona fisikoak.

5.- 10.2 artikulua aitatzten dituen patronatukide-karguak ez du epe-mugarik izango. Gainontzeko kideak lau urte egongo dira karguan, alabaina beste hainbeste denborarako, mugarik gabe, hautatuak izan daitezke.

11. artikulua.- Patronatukideen izendapena eta hutsuneak betetzeko modua

Lehenengo Patronatua Fundazioko eskritura-egileek izendatuko dute. Patronatukideen izendapena, 10.3 atalean aurreikusia, Patronatuak berak egingo du gutxienez kideen gehiengoaren aldeko bozkaz hartutako akordio bidez.

Izendaturiko patronatukideek kargua espresuki onartu beharko dute Euskadiko Fundazioen Legearen 16. artikuluan aurreikusitako formularen baten bidez. Onartze hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Heriotzagatik, ezgaitasunagatik, gaitasungabetua izateagatik, bateraezintasunagatik, uko egin diolako, lanpostutik mugitua edo beste edozein arrazoiagatik gertatzen diren hutsuneak aurreko prozedura berdinari jarraiki betekoa dira 6 hilera.

Patronatukideen kargu-kentzea Juezak erabaki ahal izango du, betiere Estatutu hauen 19. artikuluan eta Legean aurreikusitako diligentzien baitan kargua ez burutzeagatik, euren aurka erantzukizun-egintza hasita gero.

Patronatukideek kargua utziko dute Legeak hala aurreikusitako kasuetan. Horrez gain, karguetatik kenduak izan daitezke Patronatuak, gehiengoaren aldeko botoekin, Estatutu hauen 24.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gobernuko kideen ordezkapena, kargutik kentzea eta suspentsioa Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. artikulua.- Doakotasuna

Patronatukideek karguan doan ariko dira. Alabaina, karguko lanak egiteko garaian sortutako gastuak, behar bezala justifikatuta, kitatu ahalko zaizkie.

13. artikulua.- Fundazioaren lehendakaritza

1. Fundazioaren lehendakaritza derrigorrez Eusko Jaurlaritzak izango du, Estatutu hauen 10.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera, patronatukideaizateagatik.
2. Presidenteak, agintaldia behin betikoa izanik, gobernu-organo horren ordezkaritza nagusia izango du. Horrezaz gain, Fundazioa ordezkatzeko du Patronatuaren eta Fundazioaren beste organoetatik eratorritako egintza eta kontratu guztietan, baita suertatu litezkeen auzi, espediente, administrazio-kontu, gobernuak, judizialak eta judizialez kanpokoetan ere. Gainera ahalmena izango du prokuradore edo abokatuei auzitan ahalmen orokorrak emateko.

14. artikulua.- Fundazioaren lehendakariordea

1. Lehenengo lehendakari ordeza derrigorrez Gipuzkoako Foru Aldundikoa izango da, Estatutu hauen 10.2.b artikuluan xedatutakoaren arabera patronatukidea



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 21921417

delako.

2. Bigarren lehendakariordetza derrigorrez Errenteriako Udalarena izango da, Estatutu hauen 10.2.c artikuluan xedatutakoaren arabera patronatukidea delako.
3. Lehendakariitzaordea edo hura izan ezean bigarren lehendakariordeak ordezkatzeko du lehendakaria baldin eta hura absente edo gaixo baldin badago.

15. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak izendatuko du, bere kide edo kide ez direnen artean, idazkaria, zeinak Estatutu hauetan agintzen zaizkion eginkizunez gain, akta-liburuak eraman, zaindu eta Patronatuak hartutako akordioen ziurtagiriak, presidentearen oniritziarekin, egingo baitu.

16. artikulua.- Zuzendaria

Patronatuak izendatuko du zuzendaria, honek eginkizunen arabera ordainsaria izango du eta Fundazioaren kudeaketa-eginkizunak eta administrazio-lanak egingo ditu. Bereziki ondokoak:

- a) Fundazioaren ekintza-plana eta urte anitzeko eta urteko aurrekontua proposatuko du.
- b) Kudeaketa arrunteko komunikazioak eta dokumentuak sinatuko ditu.
- c) Tramite-kontuak ebatziko ditu.
- d) Ondasunak eta zerbitzuak kontratatatzeko prestatze-lanak egingo ditu.
- e) Bere eskuduntzako ordainketak agindu eta kobraketak kudeatuko ditu.
- f) Langileriaren buruzagitza-lanak egin.
- g) Presazko neurriak hartu —ezin dutelako itxaron—, gero berorien berri Patronatuari berehala emanez.
- h) Fundazioaren kontabilitatea ikuskatu.
- i) Karguari dagozkion beste edozein eginkizun egin edo estatutu hauek erabakitzen dutena.

17. artikulua.- Fundazioan lana egingo duen langileria

Patronatuak, era berean, Fundazioaren izenean gerentzia-lanak edo beste ekintzak egitea eska diezaioke gobernu-organoko kideren bati edo beste hirugarren bati. Edozein izanda ere, eginkizunen arabera ordainsariak jasoko ditu.

Izendapena eta kargu uztea Babesletzari jakinarazi beharko zaio. Gerenteari emandako ahalorde orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

18. artikulua - Delegaritzak, ahalordetza eta eskuordeko batzordeak

1. Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahaliko ditu bere kideren batengan. Ezin izango da, inola ere, eskuordetu gai hauek erabakitzen dituzten akordioak:
 - a) Urteko kontuen onespena.
 - b) Jarduera-planaren onespena.

- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea.
- e) Beste pertsona juridiko baten eratze-egintzak, ez badaude erabat lotuta helburuei.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zantatekoa fundazioaren akatiboaren %20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren %20 gaintzen duten ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo haien parte baten bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk desagitzeko egintzak.
- k) Patronatuak kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketara hori errepikatua bada eta Babesleak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

2- Orobat, patronatuak ahalorde orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzeko aukera izango du.

3.- Aurreko paragrafoan adierazitakomugekin, Patronatuak eskuordeko batzordeak eta exekutiboak sortu ahal izango ditu kasu bakoitzean erabakitzen duen eskuduntzekin. Era berean, ahalorde orokorrak edo bereziak izendatu ahal izango ditu eginkizun mankomunatuak edo solidarioak egiteko.

4.- Delegaritzea eta ahalordetza orokorrak —auzitarakoak izan ezik—, hala nola kargu-kentzeak Fundazioaren Erregistroan inskribatuko dira..

19. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren Patronatuak kideek ondokoa bete beharko dute:

- a) Fundazioaren xedeak zorrotz bete eta betearazi, betiere Legean eta Fundazioaren Estatutuaren xedatutakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondasunak eta eskubideak administratu eta, kudeatzaile onaren irizpide ekonomiko-finantzieroen arabera, beroriek ekoizpena sortzeko gisan mantendu.
- c) Karguan leialtasunez jardungo du .

20 artikulua.- Autokontratazioak egitea debekatua

Patronatuak kideek ezin izango dute, Babeslearen baimenik gabe, euren edo hirugarren baten izenean kontraturik egin.

21. artikulua.- Erantzukizuna

1. Patronatuak kideak Fundazioarekiko erantzukizun izango dira legeek determinatzen dutenaren arabera.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B21921416

2. Erantzukizunetik libre geratuko dira berori sorrarazi duen akordioaren aurka azaldukoak edo akordioa hartzeko parte hartu ez dutenak, betiere haren berri bazutela eta ez zutela aurkakorik adierazi frogatzen ez bada.
3. Fundazioaren Erregistroan inskribatuko dira —jurisdikzio arruntari dagokionez— gobernu-organoen erantzukizun-exijentzia eta justiziatik aterako litzakeen epai finkoa.
4. Babesletzak, ekimen propioz edo intereseko eta arrazoizko eskaera egin delako, erantzukizunak eska ditzake. Era berean, erantzukizun hori bera eskatu ahal izango dute fundazio-sortzaileek, baldin eta, Patronatuko kideen jarduna Fundazioaren xedeen aurkakoa edo kaltegarria bada.

22. artikulua.- Eraketa

1. Patronatua eraturik geratuko da lehenengo deialdian bilerara, pertsonalki edo ordezkatuta, une bakoitzean dauden kideen erdiak gehi bat etortzen direnean. Dena dela, beti bertan egon beharko dute Fundazioaren lehendakaria eta idazkaria.
2. Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma ez balitz erdietsiko, Patronatua lehenengo deialdirako ezarritako ordua baino ordu erdi bat beranduago elkartuko da bigarren deialdian kideen heren bat bertan egonik eta inoiz ez heren bat baino gutxiago. Dena dela, beti bertan egon beharko dute Fundazioaren lehendakaria eta idazkaria.
3. Aurreko paragrafoetan adierazitakoez gain, Patronatua konbokatutzat eta eratutzat joko da kide guztiak bertan egon eta aho batez bilera egitea onartzen badute.

23 artikulua.- Barne-funtzionamendua

Patronatuak urtean gutxienez bi bilera egingo ditu. Urte bakoitzeko lehenengo sei hiletan derrigorrez egingo du bilera aurreko urteko aurrekontua likidatzeko, inbentarioa, ekintzen memoria eta aurreko urteko kontu eta emaitzen balantzea ikusteko, hain zuzen Estatutuen 32. artikuluan aurreikusi bezala. Orobat, laugarren hiruhilekoan, egin beharreko deialdia egin ostean, hurrengo urteko aurrekontua onartuko du abenduaren 31 baino lehen Babesletzari bidaltzeko.

Idazkariak, Lehendakariak eskatuta, bileratako deialdiak, posta edo telefax bidez idatziz bidaliko dizkie Patronatuko kide bakoitzari gutxienez 10 eguneko aurrerapenarekin. Bilera presazkoa izanez gero, berriz, gutxiengo epea 3 egunekoa izango da. Deialdian eguna, ordua, lekua eta gai zerrenda adieraziko dira.

24. artikulua.- Akordioak

1. Akordioak gehiengoaren bozka bidez hartuko dira, betiere 2. eta 3. ataletan aurreikusten diren eta gainontzeko legeetan ezartzen diren salbuespenak kontuan hartuta.
2. Bertaratutakoen bozken bi herenak beharko dira ondoko akordioak hartzeko, 10.2 artikuluan aitatzen diren patronatu-kideen aldeko bozka derrigorrez sartuta:
 - a) Estatutuak aldatzeko.
 - b) Fundazioa fusionatzeko edo iraungitzeko.
 - c) Estatutu hauen 11. artikuluan arautzen den eran Patronatukide berriak izendatzeko edo kargutik kentzeko.
 - d) Fundazioaren jarduketa-ekintza eta ekintza-programa onartzeko.

3. Urte bakoitzeko aurrekontua onartzeko gehiengoaren aldeko bozka beharko da. Gainera, ezinbestez alde bozkatu beharko dute 10.2 a) eta b) artikuluetan aitatzen diren Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak
4. Patronatuko lehendakariak boto erabakiorra edo kalitatezkoa izango du.
5. Patronatuaren akordioak akta-liburuan jasoko dira. Hots, Lehendakariak eta Idazkariak sinatuta, bilera bakoitzeko aktak, akordio guztiak, hala nola bozketen emaitzak eta boto partikularrak ere.
6. Patronatua bideokonferentziaren edo beste komunikabide batzuen bidez bildu ahalko da, betiere hau guztia bermatzen bada: bertaratutakoen identifikazioa, komunikazioaren jarraitutasuna, eztabaidetan esku hartzeko aukera eta botoa emateko aukera. Horrela eginez gero, bilera presidentea dagoen lekuan egin dela ulertuko da.
7. Salbuespen gisa, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak Patronatuak, betiere informazio – eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agerrarazten bada eta haren benetakotasuna bermatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren helbidean hartu dela ulertuko da, eta emandako baliozko botoetatik azkena jasotako datan.

25. artikulua.- Kolaboratzaileak

Fundazioak kolaboratzaile gisa pertsona fisiko zein juridikoak onartu ahal izango ditu, alegia, Fundazioaren xedeak gauzatzeko asmoz, euren ezagutza, dedikazioa, eskarmentua, ekarpenak edo interesa jartzeko prest daudenak, betiere ere izaera horrek eragiten dituen betebeharrak betez.

26. artikulua.- Araubide juridikoa

1. Kolaboratzaileek beti izango dute eskubidea Fundazioak usaian egiten dituen ekintzen berri izateko, baita Patronatuak espresuki eman diezaiokeen beste edozein gauzena ere.
2. Kolaboratzaile izaera galduko da:
 - a. Izateari uko egin diolako.
 - b. Patronatuak, arrazoiak emanez, hala erabaki duelako.
 - c. Kiebra edo likidatzea erabaki delako.
 - d. Legez aurreikusitako beste edozein kasuengatik.

III TITULUA. ONDAREA ETA EKONOMIKOA ARAUBIDEA

27. artikulua. – Fundazioaren ondarea

1. Patronatuari dagokio administrazioa eramatea eta ondarea edukitzea, betiere ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Herriko Fundazioena, ezarritako mugen barruan.
2. Fundazioaren ondarea osatuko dute:
 - a) Eratzeko eskrituretan jasotako hasierako ondasunak.
 - b) Partaide eratzzaileen aportazio eta kuotak, eta Patronatuko kideek euren borondatez jarritako kuotak eta aportazioak.
 - c) Fundazioak Zuzenbidean onarturiko edozein bitarteko bidez erdietsitako edozein ondare edo eskubide, eta bereziki beste pertsonak, organismok eta erakundeek eman ditzaketan legatu, donazio, aportazio eta diru-



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B21921415

- laguntza. Donazioak, legatuak eta herentziak onartzea Patronatuari dagokio, honek Babesletza jakinaren gainean jarriko duelarik.
- d) Ondarearen emaitzak edo korrituak, produktuak edo onurak eta Fundazioak egiten dituen ekintzetakoak, hala nola, indarrean dagoen legeriaren arabera, eman ditzakeen zerbitzuen ordainketak.
 - e) Legezko beste edozein baliabide.

3. Fundazioaren ondarea baloratu litekeen ondare eta eskubide mota guztiek osatu ahal izango dute.

28. artikulua. – Ondare-aldaketak

Fundazioaren Patronatuak uneoroz, ekonomia-koiunturaren arabera, kapital-aldaketak, eraldaketak edo bihurketak egin ahal izango ditu, betiere kapitalaren balioa —nominala bere horretan mantenduta ere— efektiboa edo erosahalmenekoa murriztea saihesteko xede bakarrarekin.

29. artikulua.- Fundazioaren ondare-zaintza

Fundazioaren ondarea zaintzearen ondoko arauak beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira inbentario batean jasota, eta, hala badagokie, bidezko erregistroetan inskribatuko dira.
- b) Ondare higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatu litezkeen gainontzeko ondareak dagokien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Funts publikoak eta funts higigarriak, industrialak edo merkatuko balioak, era berean, Fundazioaren izenean ipiniko dira bankuetan.
- d) Fundazioaren balore eta eskudirua, jabetza-tituluak, depositu-agiriak eta jaberia, posesioa, erabilera, gozatze edo beste edozein eskubide Patronatuak, Fundazioaren izenean, erabakiko duen erakundean ipinikoditu.
- e) Gainontzeko ondasun higigarriak Patronatuak erabakitzen duen eran gordeko dira.

Ondasun eta eskubide hauek guztiak inbentario-liburuan jasoko dira. Bertan — Patronatuko idazkariaren kargura egongo dena—, identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezko kontu guztiak jasoko dira.

IV. TITULUA.- KUDEAKETA EKONOMIKOA

30. artikulua.- Enpresaritza-jarduerak

Fundazioak merkataritza-jarduerak edo industrialak egin ahal izango ditu, baldin eta, beroriek Fundazioaren helburuekin edo honen zerbitzurakoekin zerikusia badute.

31. artikulua.- Xedapen edo karga-egintzak

Ondare-zuzkidura osatzen duten ondasun eta eskubideei buruzko karga-egintzen berri emango zaio Babesletzari, baita xedeak betetzeko zuzenean adskribaturikoenena edo berorien balioa Fundazioaren azken urteko balantzeko aktiboaren ehuneko hogeiko baino handiagoa baldin bada ere.

32. artikulua. – Kontabilitatea eta kontuak ematea

1. Fundazioaren kontabilitatea Kontabilitate-plan orokorreko arauen edo zehazki aplikagarri zaion beste edozeinen arabera eramango da. Horrezaz gain, aplikagarri zaion zerga-legeria beteko da.
2. Patronatuak onartu eta Babesletzari aurkeztuko dio, ekitaldi bakoitzeko lehenengo seihilekoan, ondorengo dokumentuak:
 - a) Inbentarioa, aurreko urteko egoera-balantzea eta kontuen emaitza, non Fundazioaren ondare-egoera, ekonomikoa eta finantzieroa adieraziko baita.
 - b) Fundazioak aurreko urtean eginiko egintzen memoria, Fundazioaren xedeak ezagutu eta justifikatzeko nahikoa izango dena. Edozein gisatan, Memoriak finantziario-kuadroa eta emaniko aldaketak (ondareari buruzkoak edo gobernu zein zuzendaritza-organismoetan emanikoak) jasoko ditu.
 - c) Aurrekontuaren likidazioa, aurreko urteko gastu eta diru-sarreretan emanikoak.

33. artikulua.- Aurrekontua

Patronatuak urtero onartuko du hurrengo urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontua, zeina, memoriarekin batera, urteko azken hiruhilekoan Babeslaritzari aurkeztuko baitzaio.

34. artikulua. – Ekitaldi ekonomikoa

1. Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da, urte osoan emango dena hain zuzen ere.
2. Lehenengo ekitaldi ekonomikoa Fundazioaren eratze-egunean hasiko da eta urte bereko abenduaren 31n amaituko da.

35. artikulua. – Diru-sarrerak eta administrazio-gastuak

1. Fundazioaren ondasunak eta diru-sarrerak Fundazioaren xedeak betetzeko erabiliko dira behar den aldiro.
2. Fundazioak aldian-aldian bere helburu propioen programa egingo du eta xede horrekin egingo du urteko plangintza, eta beroriek nola gauzatu eta esleitu erabakiko du.
3. Gutxienez errenta garbien eta beste edozein kontzeptupean erdietsitako diru-sarren %70 helburuak — beroriei dagozkien zergak kenduta— lortzeko baliatuko dira beroriek lortzen direnetik hiru urteko epean.
4. Ondare-kontzeptupean eginiko aportazioek, eratzeko unean eginikoak zein geroagoakoak, ez dute aurreko baldintza bete beharko.
5. Gainontzeko diru-sarrerak fundazio-zuzkidura gehitzeko bideratuko dira, zeinek, administrazio-gastuak kendu ostean, ezingo dute %20 gainditu Babesletzak, Fundazioak eskaera arrazoitua eginda, lege-xedapenetan eta indarrean dauden araudietan aurreikusitakoaren arabera baimentzen ez badu.

36. artikulua. – Kontu ikuskaritza



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B21921414

1. Fundazioak urtero kontuen kanpoko auditoria egin beharko du.
2. Kontu-ikuskarien txostenak, gutxienez, ondoko puntuak jaso beharko ditu:
 - a) Kontabilitate eta urteko kontuen bidez lege edo estatutu-araudi ustezko hausketei buruz eginiko oharra.
 - b) Edozein gertakizuni buruzko oharra, baldin eta berorrek Fundazioaren egoera finantzieroarentzat arriskua suposatuko balu.
3. Ikuskariak eginiko txostenak Fundazioen Erregistroan jasoko dira.

V. TITULUA.- ALDAKETA BAT EGITE ETA IRAUNGITZEA

37 artikulua.- Aldaketa

Patronatuak estatutu hauek aldatu ahal izango ditu Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko komenigarri ikusten duen aldiro. Aldatzeko akordioa Patronatuak hartuko du 24.2.a artikuluan aurreikusitako aldeko botoen arabera.

38. artikulua. – Bat egitea

Era berean, beste erakundeekin bat egitea erabaki ahal izango du Fundazioaren helburua lortzeko bada. Akordioa arrazoituz eta 24.2.b artikuluan aurreikusitako aldeko bozken arabera egingo da.

39. artikulua.- Iraungitzea

1. Fundazioa iraungituko da ekainaren 2ko 9/2016 Legean aurreikusitako kasuei jarraiki, hala nola Fundazioaren helburuak betetzea ezinezkoa egiten duten zirkunstantziak emango balira.
2. Fundazioa iraungitzeko beharrezkoa izango da, kasuen arabera, Patronatuak erabakia hartzea Estatutu hauen 24.2.b artikuluan aurreikusitakoaren aldeko bozkaz. Orobat onartuko du likidatzaileak izendatzeko proposamena, jarduketa-programa eta likidaziotik sortuko den produktuaren banaketa-proiektua Babesletzaren ikuskaritzapean.

40. artikulua.- Likidazioa

Ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakoaren arabera, likidaziotik aterako liratekeen ondasun eta eskubideak Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko lirateke, zeinak helburu berdintsuak dituzten eta Euskal Erkidegoan egoitza duten erakunde publikoek —fundazio izaerakoak izan edo ez— bideratuko baititu.

VI. TITULUA.- BABESLETZARENA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

41. artikulua.- Babesletza

Babesletzak indarrean dauden legeetan aurreikusitakoaren arabera egingo du Fundazioaren tutoretza, aholkularitza eta kontrol-lana.

42. artikulua.- Fundazioen erregistroa

Fundazioaren eraketa, hala nola legez beharrezkoak diren egintza edo negozio?? juridiko guztiak Fundazioen erregistroan inskribatuko dira Legearen arabera.